



LEZOKO NEKAZARITZA XIX. MENDEAN


Aintzinako Lezon bizi zirenen bizimodua eta ekintzak oso umilak ziren, biztanle gehienak baserritarrak edo arrantzaleak bait ziren. Hala ere, beraien bizibide nagusizat gauduen explotazioa zeukaten. Eta honela, erregeak Gillermo Lazoni eman zizkion eskubideen artean, lezoar ez zen inork ezin zezakeela Lezoko lurraldeetan bere aziendak larretu, irakur daiteke.

Biztanleria kaleko lurraldeetan, etxeetan edo baserrietan banaturik zegoen, eta baratza ere landu egiten zuten, etxean behar zituzten barazkiak lortzeko. Baina denborarekin baratzak garrantzi haundiago hartu zuen, batez ere artoa eta garia. Baina hala ere Lezoko lurrek ematen zutenarekin ez zen bertako kontsumoa betetzen, eta honela 1787an herrian 3.500 anega gari kontsumitzen ziren bitartean, Lezoko uzta ez zen 980 anegatik pasatzen.

Beranduago, eta gipuzkoar laborantzaren aurrerapen orokorrarekin batera, produzioa zabaldu eta ugaritu egin zen. Landare berriak sortu ziren, eta barazki, lekazi eta zuhainen erabilkera nonnahi azaldu zen. Honekin batera hegalandoeak ere zabalkunde haundia izan zuten, batez ere sagarrondoek.

Bestaldetik eta ganaderitza osatuz, artaldean ondoan behi eta zaldi taldeak azaldu ziren.

Hasiera batetan, etxe inguruko lurak lantzen ziren, lur hauek gehienetan, etxeen propietatea bait ziren. Gehien erabiltzen ziren produktuak: garia, artatxikia, oloa eta garagarra. Babarruna eta artoa beranduago sartuko ziren, eta patata edo lursagarra askoz beranduago oraindik.



Gariak eta artoak oso garrantzi handia eduki dute Lezoarren elikaduran. Hala ere, Lezoko lurretatik ateratzen zena ez zen nahikoa herriaren beharrak asetzeko, eta normalki kontsumoa betetzeko falta zena Nafarroa aldetik ekarri egiten zen.

PRODUZIOA, KONTSUMOA ETA INPORTAKETA LEZON, 1862, 1863 eta 1864 URTEETAN.

Arto eta gariaren prezioak	Produzioa Gaztelako neurrietan		KONTSUMOA (Gaztelako neurrietan)				Beste probintzietatik inportatutakoa	
	ARTOA	GARIA	garia	artoa	ardoa	olioa	ardoa	olioa
1862 artoaren prezioa - 6 erreal garia - 9 erreal	800 anega	2.000 a.	1.080 anega	5.175 anega	3.350 ardoa	120 ardoa	3.300 ardoa	120 ardoa
1863 artoa - 8 erreal garia - 9 erreal	800 anega	2.300 a.	1.070 anega	5.175 anega	4.136 ardoa	120 ardoa	4.136 ardoa	120 ardoa
1864 artoa - 8 erreal garia - 9 erreal	760 anega	2.200 a.	1.070 anega	5.175 anega	4.430 ardoa	120 ardoa	4.460 ardoa	120 ardoa

Baratzaz aparte, Lezon zeuden beste lur guztiak komunalak izanik, zelai eta basoetako zuraren probetxamendua lezoar guztien eskuan zegoen.

Abelgorrizaintza oso garrantzitsua zen, eta ganaduek egun osoa larretan pasatzen zuten, bai komunaletan eta baita ere ahozko kontratuen bidez lortutako lur partikularretan.

Ematen duenez, hasiera batetan, ahuntz asko zeuden lur komunaletan, baina hesiak puskatuz, aldameneko lur pribatuetara errez sartzen zirela, eta zuhaitz eta kimu berriei oso kalte handia egiten zirela eta, legeak beren aurka jarri ziren, nahiz eta beraien jabeek protestatu ahuntzaren hazierak oso lan gutxi behar zuela argudiatuz.

Zerri azienda oso handia izanez, laister ardi azienda haundiagoa oraindik egingo zen, Lezoko irabazbide nagusia bihurtuz. Lezon zeuden eremu zabalak oso onak eta egokiak ziren ardi hazkuntzarako.



1857, 1877 eta 1891 URTEETAN LEZON EGINDAKO AZIENDA ZENTSUAK

AZIENDA MOTA	URTEA:	1857	1877	1891
zaldiak		—	2	11
astoak		30	38	64
behi aziendak		270	128	432
ardi aziendak		800	292	562
ahuntz aziendak		—	12	7
hegaztiak		—	—	—
zerri aziendak		70	40	107
uztarriko behiak		—	40	80
idiak		20	5	—

1855, 1887 eta 1981 urteetan Lezon egindako azienda zentsuak Kuriositate bat bezala hemen dugu Lezon, 1877an egindako lanabesen (lan tresnen) inbentarioa:

LANABESA MOTA	LANABESEN KOPURUA
igitaiak.....	126
laiak.....	80
aitzurak	378
segak.....	63
gurdiak.....	63
goldeak	126
orgarri gurdikadak	630

Bestaldetik, Jaizkibelen zeuden lurralde komunalek izugarritzko eta etengabeko istiluak sortu zituzten Lezo eta Hondarribiko herrien artean. Lurralde komunal horietan, garaiko elikaduraren barruan pisu handia zuten hegalondoak landatzen ziren, batez ere gaztainondoak eta sagarrondoak. Hauekin batera, intxaurreondoak, urritzak, lizarrak, pagoak eta haritzak ere, oso zabalduta zeuden.

Garaiko elikadura artoa, gaztainak, salda eta sagar egosietan oinarritzen zen. Ogiari dagokionez, normalki zabalduena, etxeetako labeetan artoz edo oloz egindako artogia zen. Bestaldetik sagardoa ia kontsumitzen zen edari bakarra zela aipatu beharra dago.

Aurrerakoan, gariak nahiko garrantzia hartu zuen, hala ere gehienetan, kanpotik ekarri behar izaten zuten, bertako uztak oso defizitarioak izaten zirelako.

Piskanaka piskanaka landare batzuen erabilkera urritzen zihoan bitartean, beste batzue-na gora joaten zen. Hauxe izan da patata, erremolatxa, arbia,... eta orokorki barazki gehien kasua.

LEZON, 1857, 1859 eta 1860 URTEETAN, PRODUZIO EZBERDINEN ZEHAZKIZUNAK

URTEA	GARIA	ARTOA	BABARRUNA	BABA	PATATA	GAZTAINA	SAGARRA
1857	200 anega	2.000 anega	50 anega	40 anega	60 kintale	4 anega	300 sagar karga
1859	260 anega 36 erreal	2.100 anega 32 erreal	80 anega 80 erreal	50 anega 60 erreal	60 kintale 18 erreal	40 anega 40 erreal	280 karga 64 erreal
1860	260 anega 40 erreal	2.100 anega 30 erreal	320 arroa 20 erreal	50 anega 50 erreal	400 arroa 40 erreal	40 anega 40 erreal	400 karga 7 erreal

Nahiz eta aintzinako denboraldietan belarra ez bildu, ganaduak larretan egoten bait ziren, XVIII. mendetik aurrera, nekazariak holako lanetan aritzen hasiko ziren. Garai hortatik aurrera baita ere, zelai eta zuhainen zaintzak oso garrantzi handia eudukiko du.

Sagar lanak ere aspaldikoak direla Lezoko lurretan adierazteko hor dugu

SAGASTI" izeneko baserria, oso gutxi izango bait ziren garai batetan, sagastirik gabeko baserriak. Baserri gehienetan bere toleara zeukaten sagardoa egiteko. Honen beherakada XX. mendearen hasieran izan zen,... eta gaur egun sagarra Lezoko lurraldeetan ia desagerturik dagoela esan daiteke.

a) ETZELURRAK.- Dirudienez, aintzinatean Lezoko lur gehienak etzelurrak ziren, eta barririk herriaren ondoan edo lehenbiziko baserrietako lurrak erabiltzen ziren baratza moduan. Denborarekin, bai ganaderitzak eta bai baratzak gero eta indar gehiago hartu zuten, lur berrien beharrez ikusi ziren, eta etzelurrak aprobetxatzen hasiko ziren. Honela piskanaka piskanaka etzelurrak desagertzen joan ziren. Dirudienez, eta idazki zaharretatik ateratzen denez, XIX. mendearen hasieran etzelurrak horrela eskatzen zuten nekazarien artean banatu egin ziren. Honen lekuko badugu Aldarrakuntza baserriko Bernarda Etxebestek aurkeztutako eskaera:

LEZO UNIBERTSITATEKO UDALETXE KOSTITUZIONALAREN LAGUN JAUNAK:

Unibertsitate honen barruan dagoen Aldarrakuntza baserriko biztanle den Bernarda Etxebestek, oso errespetu haundiz, hauxe azaldu nahi dizue:

“Herrietara bidali den Errege Jaun Agurgarriak sinaturiko agindu batetan irakur daitekeenez, herrietan zeuden etzelurak nekazaritzan aritu nahi duten nekazari edo bestela azkeneko gudatean elbarriturik gelditu zirenen artean banatu behar direlarik, eta hau jadanik, eta nekazaritzan aritzeko dituen asmo biziak agertuz, eta bereak baino eskubide gehiago daukate-nei inolako kalterik egin nahi gabe, Aldarrakuntza baserriaren ondoan dauden haietako zazpi edo zortzi goldelur eman diezazkiozuela eskatzen dizue”.

Zuen baietza lortuko duelakoan.
LEZO, 1821ko urtarrilak 7

Eskatzailearen izenez:
MARTIN JOXE ARANBURU

- b) OTI IZURRITEA AGIAN?.- Aintzinatean mota guztietako izurriteak oso ugariak izango ziren, bai pertsonen eta bai azienden artean, hala ere ez zaigu datu askorik gure egunetara iritsi. Lagunen artean egon ziren izurriteak Sanitatearen arloan nahiko zabaldua dagoenez, eta azienden artean egondakoei buruz nahiko esaten dugula beste ataletan kontuan izanik, hemen bakarrik oti izurriteei buruz mintzatuko gara, zehazkiago zenbait testuetatik ateratzen denez, 1826an gertatutakoaz.

Lezoko artxibategian eta 1826ko otsailaren 23 datarekin dagoen agiri batek dioenez, garai hortan, Gipuzkoako korrejidorea zen Anizeto Larrea jaunak, Gizpukoa osoan zegoen oti izurritearen kontrako neurri azkarrak eskatu zizkion Madrileko Gobernuari.

Madrileko erantzuna iritsi bezain laister, Gipuzkoako herri guztietara bidali zen. Lezon gorderik dagoena Junta eta Diputazioetako idazkari nahusia zen Tomas Joakin Añorga Olazabal eta bere Gipuzkoako ordezkaria zen Joan Batista Arrizabalagak sinaturik dago.

Bainan agiri honen aurrean ez dugu oso argi ikusten Lezon oti izurritea zabaldurik ote zegoen edo agian Gipuzkoako zenbait herritan izurritea zegoela ikusirik, agiria mekanikoki bidali egin zen gipuzkoar herri guztietara, oti izurritea zeukaten edo ez ongi jakin gabe. Dena dela datu hau hemen dugu.

- d) ARDI AZIENDAK.- Dirudienez, eta leku gehienetan bezala, ardi azienda izan zen Lezoko lurraldeetan sartu eta zaindu egin zen lehenengoa.

Herrian zeuden eremu komunal ugariak ardiaren hazkuntzarako oso egokiak zirenez, laister gure lurraldeetan lehenengo artaldeak azaldu ziren. Zorigaitzez ez dugu honi buruzko datu zehatzik, lehenengoak 1865an egindako zentsuan agertzen direlarik.

Zentsu honetan esaten denez, Jaizkibeleko lurrak hondar lurrak ziren eta lur haue-tan otak, garoak, txilarrak eta ametz landare gazteak nonnahi ikus zitezkeen.

Lezoko ardiak Jaizkibeleko eremu komunaletara larretzera eramaten ziren. Udaran Eskuria izeneko lekura eta neguan Gaiztarrotz deitutakora. Maiatza - otsailaren artean Jaizkibelen egoten ziren eta martxoan eta apirilean Gaintzurizketako ibarretara jeisten ziren. Osoan hirurogei ta hamar inguruko artalde zeuden.

Ardiaren artila produzioa urtean zehar bi moztealdietan banaturik eta osoan bakoitzak urteko hiru libra ematen zuen.

Esnerari dagokionez, ardi bakoitzarengatik kutxut ardi bat esne ateratzen zuten, eta bestaldetik urtean zehar artalde bakoitzatik hirurogei ta hamar arkume inguru lortu egiten ziren. (Kutxut = aintzinako esne neurria. Erdaldunek “cuartillo” deitzen zioten).

Eta garaian zeuden prezioen ideia bat emateko nahian hona hemen orduko salneurriez osatutako koadroa.

AZIENDA MOTA	PREZIOA
aharia	120 erreal
arkume zikiratua	70 erreal
ardikia	70 erreal
ardi zaharra (bizirik).....	24 erreal
ardi zaharra (hilik).....	20 erreal
aurrerako bildotsa.....	30 erreal
arkumea	20 erreal

Gazta produzioaren aldetik eskuz egiten zirela esan beharra dago. Garaiko idazkiek diotenez, ogia egiteko jarraitzen zen prozeduraren antzekoa erabiltzen zen gazta ondua egiteko. Gazta freskuaren librak bi erreal t'erdi balio zuen bitartean, gazta onduarenak hiru erreal.

Dirudienez, ardi gaitzak oso zabaldurik zeuden, eta hemen, Lezon, hiru gaitz eta izurrite baten zehazkizunen berri izan dugu. Testu zaharrek digutenez, "erbieta" izeneko gaitza sendatzeko, ardiari ipurditik odola bota eraztea egiten zitzaion. "Lolda" deitutakoa kentzeko, belar ondoko dieta zen egokiena, eta bazegoen baita ere "zibela" izeneko beste hirugarren bat.

Bestaldetik, "Pikota" izenez ezagutzen zen izurritea udaberri aldean agertu egiten zen eta oso kalte handiak zekarzkie. Erremedio bakarra, mindurik zeuden ardiak artaldetik kentzea zen.

- e) HERLAUNTZAK.- Lehen aipatu dugun 1864ko zentsu beran, herrian zeuden lau herlauntzen berria jaso dugu. Zaintzeko eta argizai eta ezta jasotzeko arduran, lau jornalari berezi aritzen ziren.

Lau herlauntza hauetatik ateratzen zen argizai kopurua hamaika librakoa izaten zen, eta libra bakoitzak bost erreal balio zuen.

Bestaldetik, ateratzen ziren zazpi bat arroa eztiaren salmentaz osoan, larehun ta bost erreal irabazi egiten zituzten.

- f) LEZOKO SAGASTIAK.- Guztion ezaguna da sagardoak Euskal Herrian izan dituen pisu eta indarra, eta nahiz eta edari honen eta sagardotegien kondairaz datu zehatzik ez izan, argi eta garbi ikusten dugu gure iraganean izan duen aparteko garrantzia.

Garai batean, Lezoko sagastia oso famatuak ziren, eta Jaizkibelego magaletan hasitako sagarrek ematen zuten sagardo goxoa famatuagoa oraindik. Zoritxarrez ez dugu datu askorik aurkitu eta esbozo orokor honekin konformatu behar izango dugu.

Sagardoari buruz Euskal Herrian dauden albiste zaharrenak XI. mendekoak ditugu, Nafarroako Antso Haundia izeneko erregeak sinatutako agiri batetan azaldutakoak hain zuzen.

Lezon XV. mendeko zenbait testutan azaltzen dira lehenengo berriak. 1827an Joxe Iñazio, Joxe Luix eta Manuel Maria Isasa anaiek beren aita zenaren testamenduaren bidez Martiskoeneako sagastia jasotzen dute. 1831an, Manuel Iñazio Sarasolak Olauringo sagastia ematen dio bere laguna den Martin Aranbururi, aurretik zituzten tratu batzuk betetzeko nahian.

Bi hauek ez dira bi kasu bakarrak, lezoko kondairan ez!, baizik eta normalean, "millareak" ordaintzeko orduan, askotan erakusten dira sagastia beste ondasunen arte-

an. (Azkeneko bi mendetan batez ere, lanpostu publikoak hartu nahi zituenak edo bestela hauteskunde ezberdinetan parte hartu nahi zuenak bere odolaren garbitasuna azaldu behar zuen epaimahai baten aurrean, eta honekin batera legeak momentu hortan exijitzen zituen ondasunak, hauen artean dirua, etxeak, sagastiak,... zirelarik. Hauek dira aurrean aipatu ditugun millarista famatuak, eta millareak azaldutako ondasunak).

Oso datu gutxi, baina hala ere badakigu 1860 urte arte Lezon ematen zen sagardo produzioa seirehun bat kargakoa zela. (Kontuan izan karga bakoitzak sei sagar zaku zituela).

1867an eta Lezon ezagutzen den nekazal krisiaren ondorioz, sagardo produzioa 265 kargetara jeisten da.

1913an, Lezoko sagardo produzioak bere puntu gorena eduki zuen 1800 kargetan. Hortik aurrera sagardo produzioa gutxiagora joango zen, eta gaur egun ia ez du inolako garrantzirik. (Ikus 1. koadroa)

Lezon sagastiei dedikatu diren eremuen zabalerari begiratzen badiogu, oraindik hobeto ikusiko dugu sagardoak Lezon izan duen beherakada handia. (Ikus bigarren koadroa)

LEZON IZANDAKO SAGARDO PRODUZIOAK	
URTEAK	KARGAK
1860 arte	600
1867an	265
1913an	1.800
1984an	ia deus ez

LEZON SAGASTIEI URTEZ URTE DEDIKATU ZAIZKIE LUA EREMUA	
1889an	20 Ha
1926an	45 Ha
1980an	4-5Ha

- g) 1870 - 1880ko NEKAZAL KRISIA.- XIX. mendeko hirurogei ta hamarreko hamarkadan, Lezoko nekazaritzak beherakada handi bat jasan zuen. Beherakada honen aurrean, 1877an, Gipuzkoako Foru Aldundiak komisio ikerle bat eratu zuen krisiaren zergaitiak bilatu nahian.

Komisioaren iritziz, hegaliak eta barazkiek zeuzkaten prezio bajaran ziren Lezon gertatzen ari zen nekazal krisiaren kausa nahusienak. Prezio bajaran hauek ikusirik, nekazariak Errenteria eta Pasaiako lantegietara abiatu bait ziren, baratza utzita.

Honela, aurreko hamarkadarekin konparatuz, produzioa %48 batean, jeitsi egin zen, eta lehen baratza ziren lurretan, orain alpala eta beste belarrak jartzen hasiak ziren, azienden janaria bezala erabiltzeko asmoz.

Nekazal krisia hobeto ulertzeko hona hemen, 1877 eta 1887 urteen artean, garaiak eta artoak, hektolitroetan neurturik, izan duten balore medioa.



URTEAK	1877	78	79	80	81	82	83	84	85	87
GARIA	22	22	21	21	21	21	21,8	21	21,2	22
ARTOA	20	20	18	20	20	20	20	18	16	18

GARIAK ETA ARTOAK, HEKTROLITROETAN NEURTURIK, URTEZ URTE IZAN ZUEN BALORE MEDIOA.

*Karlos Etxezurieta "GAINZA
Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa" (1983)*

"Laiatzaileak". Elias Salaberriaren koadroa

